

# XEDAPEN OROKORRAK

## KULTURA SAILA

### 511

*AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 9koa, Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Intelektualaren Lurralde Erregistroa sortzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak (abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak) 12.4 artikuluan dioenez, jabetza intelektualaren gainean Estatuak emandako legeen betearazpena Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, nahiz eta Estatuarena izan alor horretako legegintza-eskumen eskusiboa (Espainiako Konstituzioaren 149.1.9 artikulua).

Ekainaren 28ko 141/2011 Dekretuaren bitartez, Transferentzietarako Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an harturiko Erabakia onartu zen, alegia, jabetza intelektualaren legedia betearazteko alorrean irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzuak handitzeari buruzko Erabakia.

Kontuan hartu da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen martxoaren 22ko 45/2011 Dekretuaren 10. artikulua Kulturako Ondarearen Zuzendaritzari esleitzen dizkiola Jabetza Intelektualaren Erregistroaren eta hori kudeatzeko erakundearen alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen funtzioak.

Ondorioz, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Intelektualaren Erregistroa sortzen da, Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorrean integraturiko lurralde-erregistro gisa.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Intelektualaren Erregistroa Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikiko zaio, eta Erregistroari dagozkion funtzioak Kultura Sailaren zerbitzu zentralak hartuko dituzte beren gain.

Hirugarrena.– Kulturako lurralde-zerbitzuetan ere aurkeztu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Intelektualaren Erregistroa zuzendutako eskariak, ondorio horietarako Erregistroaren ordezkari-bulego moduan jardungo baitute.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 9a.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.